



## ELANTXOBEKO MITOLOGIA

Itxosoko, putzu batzuetako eta ibaietako urak, Euskal Herriko leku askotan, jeinu jakin batzuen (laminak, batez be) bizilekutzat jotzen dira eta euren hondoetan etxe eta herri zahar madarikatuak dagozela uste da. Jeinu batzuk (laminak, sorginak eta gaizkinak) gaiztotzat hartuten dira, arrantzaleei eta itxosgizonei erasoka azaltzen dira. Horrela hasten da *On Jose Miguel Barandiaranen "Euskal Herriko mitología"* liburuan itxosoko mitologiaren gaineko kapitulua. Bertan itxosoko jeinuak aitatzen dauz eta ezkerreko argazkiaren ondoan diño: Elantxobeko portua, bertan *Traganarru* eta *Olatu itxura hartzen daben hiru sorginen* leiendak kokatzen dira. Iazko Elantxobeko Kriselan argitaratuko "*Habanan*" leienda aitatzen dau be bai, hau be Elantxoben kokatua.



Traganarru, portuan bainu hartzen edo bainu hartunda gero hangoiko bidebarri puntan gengozala urrunetik itxosoa eta zerua elkartzen ebazan haize-zurrunbiloa ikusita arrantzaka hasten zan nonor beti: "*Traganarru dator, Traganarru dator...*" Traganarru dator, horrek berbak orain gomutatzean konturatuten naz esanguraz: *Traganarru dator, eta ez Traganarru dago*, itxosoko leiendetako jeinua zan etorrena, ez fenomeno atmosferikoa bakarrik. Gure nagusiek gugan itxitako arrastroa, kontatu ez jakun leienda baina berba egiteko moduan geratu jakuna. Traganarru euskal mitologiaren irelu edo jeinua da, itxosoari lotuta agertzen da, eta itxosoan gertatzen diren hondamendien irelua da, bortitza eta generalean traganarruaren edo erremolinoaren itxuragaz agertzen dana, itxosontziak eta pertsonak irensteko. Garai bateko itxosgizonak eta gaur egunekoak be gehien ikaratu dauzen irelua da. Esan leike arrantzaleen eta marinelen etsaia dala. Normalean, ez dira oso indartsuak, tornadoek baino indar gitxiago daukate eta gitxi irauten dabe. Halanda be nabegazinarako arriskutsuak izaten dira. Traganarru irelua gertaera natural hauen pertsonifikazioa da. Gernikaldean da batez be ezaguna.



## TRAGANARRU

Txikitán, portuan bainu hartzen edo bainu hartunda gero hangoiko bidebarri puntan gengozala urrunetik itxosoa eta zerua elkartzen ebazan haize-zurrunbiloa ikusita arrantzaka hasten zan nonor beti: "*Traganarru dator, Traganarru dator...*" Traganarru dator, horrek berbak orain gomutatzean konturatuten naz esanguraz: *Traganarru dator, eta ez Traganarru dago*, itxosoko leiendetako jeinua zan etorrena, ez fenomeno atmosferikoa bakarrik. Gure nagusiek gugan itxitako arrastroa, kontatu ez jakun leienda baina berba egiteko moduan geratu jakuna. Traganarru euskal mitologiaren irelu edo jeinua da, itxosoari lotuta agertzen da, eta itxosoan gertatzen diren hondamendien irelua da, bortitza eta generalean traganarruaren edo erremolinoaren itxuragaz agertzen dana, itxosontziak eta pertsonak irensteko. Garai bateko itxosgizonak eta gaur egunekoak be gehien ikaratu dauzen irelua da. Esan leike arrantzaleen eta marinelen etsaia dala. Normalean, ez dira oso indartsuak, tornadoek baino indar gitxiago daukate eta gitxi irauten dabe. Halanda be nabegazinarako arriskutsuak izaten dira. Traganarru irelua gertaera natural hauen pertsonifikazioa da. Gernikaldean da batez be ezaguna.

## HIRU OLATUAK

Olatu bihurtutako sorginak askotan aitatu dira Euskal Herriko kostaldeko herrietan. J. M. Barandianek Elantxoben kokatzen dau kondaira eta hauxe diño: "*Elantxoben be bai hiru sorgin olatu izugarriak bihurtu ziran gorroto ebezen arrantzaleen itxosontzia hondoratzeke. Euren artean zelan ipini behar zan txalupa olatuen kontra komentatu eben, arrantzale batek hori entzun eta holan lortu eben enbarkazinoa onik ataratea*".

Juan V. Araquistainek "Las tres olas" deituriko kondaira argitaratu eban, *Tradiciones vasco cántabras* idazlanean (Tolosa, 1866). Honek Deban, beraren herrian, kokatzen dau kondaira. Geroagokoa izan zan Barandiaranen beharra baina honek, esan dogun modura, geure herrian entzun eban istorioa. Umetan, askotan, Kurtzeko moilan, *hiru olatuak* kontaten genduzan eta pasa artean geldirik egoten ginan, gero korrika moilan sartzeko eta buelta emoteko. Toti Martínez de Lezeak Bermion kokatzen dau istorioa baina Bermiotik Elantxobera aldaketa handirik egongo ez dalakoan, hortxe doatzue istorioa:

*Behinola bazan sorgin bat besterena beretzen zale-zalea. Egun batean, Matxin arrantzalea arrantzatik etorren eta otzara bete antxoba ekarren; batzuk bizirik egozan oraindik. Sorgina bidera atera jakon:*

*-Kaixo, Matxin, gaur arrantza ona, ezta?-esan eutson.*

*-Bai, ez dago txarto. Behar gogorra izan da, baina azkanean beharrak balio izan dau -erantzun eutson arrantzaleak.*



*Handik alde egitera joian, nahiago baitzeban sorgin batekin berbetan inork ez ikustea, baina harek esan eutson:*

*-Aizu, zergaitik ez deustazuz antxoba horreek emoten ?*

*-Baina zer diñozu, txikiña? -esan eutson Matxinek bere onetik ataraten hasita- zu burutik eginda zagoz! Aide nire bidetik, atso zahar hori!*

*Eta hori esanda, mutilak bultzada batez baztertu eban eta bere bideari segidu eutson. Sorginak ezin eban bere hasarrea disimulatu.*

*-Madarikatua! Hau ez dok horrela geratuko! Ordainduko deustak, bai! -esan eban ukabila altxatuta.*

*Eta, hori esanda, beran alabaren eta lagun sorgin*

*baten bila joan zan.*

*-Entzun ondo! Matxin arrantzaleak otzarakada antxoba ukatu deust eta gainera, atso zaharra deitu deust... eta hori bai ez deustodala parkatuko! Bihar itxosoratzen danean, itxauten eukiko gaitu. Hiru olatu erraldoi bihurtuko gara. Mendeku hartuko dot! Lehenengo olatuak kezkatu egingo dau, bigarrenak ikaratu eta hirugarrenak... hirugarrenak hondoratu egingo dau!*

*Eta hirurak hondarrerantz abiatu ziran. Matxinek ez eban salbaziorik izango, baldin eta Takiok, bere auzokoak, dana entzun eta lagunari esan ez baleutso. Matxin kezkatu xamar geratu zan... ez zan gauza ederra olatu bihur eitekean sorgin indartsu bategaz txarto konpontzea... Halan be, itxosoratu eta erasorako prestea erabagi eban.*

*Biharamunean, betikolez, sareak prestatu eta Takiorekin itxosoratu zan, harek beragaz joan nahi ebalu adierazo baiteutson.*

*Bazeramaten alditxu bat itxosoan, eta horretan olatu handi bat ikusi eben eurengana etorrela.*

*-Hamen lehenengo! -esan eban Matxinek.*

*Olatua heldu eta gora-gora altxa eban txalupa.*

*Handik apur batera bigarren olatua agertu zan.*

*-Hara, bigarrena! Eutsi, Takiok, honek dantzan ipiniko gaitu eta!*

*Eta halan gertatu zan. Bigarren olatua aurrenekoa baino handiagoa zan eta txalupa lehenengo ezkerrean eta gero eskumara etxunarazi eban. Bazirudien txalupa une batetik bestera hondoratuko ebalu. Baina bigarren olatua be pasa zan.*

*Azkanean, urrunean, hirugarren olatua ikusi eben. Izugarria zan, besteak baino askoz handiagoa, baltza eta bildurgarria.*

*-Hara, bada, hirugarrena! Erne egon, Matxin -esan eutson arrantzaleak bere buruari-, okerrik egiten badok galdua haz eta!*

*Matxinek arpoia hartu eban eta erasoari aurre egiteko prest jarri zan. Olatu izugarri ha txalupa eta gizon biak irunstera joianean, Matxinek arpoia jaurti eban olatuaren bihotzera, erdi-erdira. Ikaragarriko oiho bat entzun eben, olatua gorri-gorri bihurtu zan segiduan eta txalupa ikutu gabe desagertu zan.*

*Matxin eta Takiok pozarren alkar besarkatu eben eta portura itzuli ziran; arrantzarik egin gabe etozan, baina nahiko eben egun haretarako.*

*Biharamunean herritar guztiak galdezka ziran zer gertatu ete jakon sorgin famako emakume bitxi hari, arrastorik itxi barik desagertu baitzan, hondarrean azaldu zan lepoko zapia ez bazan. Inor ez zan ausartu haren alabari eta lagunari ezer galdetzer; hareek, baltzez jantzita, negar eta negar ebizan itxoso bazterrean.*

*Horregatik, inguruko arrantzaleek beti gomutatzen dabe istorio hau, eta beti batera agertuten diran hiru olatuei "Hiru Mariak" deitzen deustez.*

